

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Guren enpresan edozein pertsona ongietorria izan arren, gure jarduera gazteen aisialdira zuzenduta dago gehien bat; konkretuki, 14-25 urte bitarteko gazteentzat.

Horregatik, gure zerbitzua gazteentzako eskuragarriagoa izateko, gazte txartelaren bidez deskontuak eskainiko ditugu, bai janari bai edarietan. Honen harira, azaldu beharra dago Gasteizen horrelako zerbitzurik ez dagoela, eta bertako klima kontuan hartuz, neguan gazteen sozializatzeko beharrari erantzuteko irtenbide gisa ikusten dugu gure enpresa.

Hasiera batean gure enpresa soilik Gasteizen kokatuko dugu, denborarekin beste euskal hiriburuetan zabaltzeko asmoz.

